



Esp. zk. SUBV_EVAL_INDIV/2026/1

Dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, krisialdi-egoeran dauden edo beste zenbait egoeratan bizi diren familiei alokairuak ordaintzen laguntzeko.

Etxebizitzaren aldeko 2026ko programa

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela bete dadin Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa. Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak ordenantza hori hasiera batez onetsi zuen 2005eko azaroaren 3an hartutako erabakiaren bidez, eta erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean inork erreklamaziorik aurkeztu ez zuelako. Deialdi honetan arautu gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. ([2006ko 21. NAO on argitaratua, otsailaren 17koan](#)).

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emaila:	Gizarte Ekintzako Zinegotzi Ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Gizarte Ekintzako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko idazkaritza teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea: Deialdi honen xedea da ohiko etxebizitzaren alokairuaren parte bat ordaintzeko dirulaguntzak ematea Iruñeko Udaleko gizarte-zerbitzuen laguntzarekin etxebizitzaren arloan gizarteratze ibilbide bat egiten ari diren edo egingen duten familia-unitateei, egoera hauetako batean badaude: - Krisialdi sozioekonomikoan dauden familiak, alokairuzko etxebizitza bat mantentzeko zailtasunekin. - Udal-etxebizitzetan bizi izan diren familiak, Iruñeko Udalaren programen edo zerbitzuen babesean, eta Udalarena ez den alokairuko etxebizitza batean sartuko direnak. Horiekin guztiekin ibilbide bat egingen da, zeinetan baliabide teknikoak aplikatuko baitira, laguntza jasotzen ari diren bitartean, etxebizitza bat modu autonomoan eskuratu eta mantentzeko gaitasuna eta autonomia beregana dezaten.
2. Deialdiaren xedea: Berriazko erantzuna eman nahi da, aldi baterakoa, etxebizitzaren arloko beste laguntza eta dirulaguntza batzuen osagarria eta subsidiarioa, inklusioa xede duen proiektu sozial edo gizarte- eta hezkuntza-arloko proiektu zabalago baten barnean, etxebizitzaren arloan premia eduki eta egoera sozioekonomiko zein familiar kaxkarretan Iruñean bizi diren familiei eskainia. Helburu hori lortze aldera, aldi baterako dirulaguntzak emanen dira, gehienez ere bi urtez, familien baliabideen osagarri gisara, ohiko etxebizitzaren alokairua ordaintzeko, familia bakoitzari kasuan kasuko gizarte-zerbitzuak beste zenbait neurri eratzen dituen bitartean, etorkizunean autonomoak izan daitezen etxebizitzaz bezainbatean. Hala, udaleko oinarritzko gizarte-zerbitzuek berriazko babesa eta laguntza eskainiko dizkiete familiei, hala etxebizitza lortzen nola hura egokitu eta mantentzen, eta adostutako gizarte eta hezkuntzako ibilbideak egingen dituzte, familia horiek denbora jakin batean etxebizitza batean beren kabuz bizitzeko gai izan daitezen.



3. Diruz laguntzen ahal diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak eta epeak:

Deialdi hau zuzenduta dago hileroko dirulaguntzak ematera, eskatzaileei merkatu libreko etxebizitza edo etxebizitza babestu baten alokairua ordaintzen laguntzeko, baldin eta deialdi honen D.1 apartatuan galdegindako baldintzak betetzen badituzte, ematen denetik 2026ko abenduaren 31ra arte.

Deialdi hau 2026. urte osoan egonen da indarrean.

Aurreko urtean emandako dirulaguntza berritzea eskatzen ahalko da, B.4 atalean ezarritakoarekin bat, baldin eta gehienez ere aurreko urteetan orotara 24 hilabete baino gehiagoz ez badu jaso.

Eskabideak aurkezteko epea 2026ko urriaren 31ra arte egonen da zabalik. Handik aurrera ez da onetsiko eskabide berririk. Erregistratutako eskaerak baloratze aldera eskatzen den dokumentazioa noiz erregistratu eta 10 eguneko epean aurkeztu behar da, gehienez, aurkezteke dagoen dokumentazioa.

4. Baloratzeko betekizunak, bideak eta lehentasunak:

☒ BAI ☐ EZ

Dirulaguntzak emanen dira eskaerak eta onuradun izateko ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzeko agiri guztiak aurkeztu ahala, eta, betiere, eskaerari erantzuteko aurrekontu-kontsignazioa egon bitartean. Beraz, ezin izanen da dirulaguntzarik ematea onetsi 2026ko aurrekontua indarrean sartu arte.

- Familia-unitate onuradunek jaso beharreko zenbatekoak familiaren azken sei hilabeteetako per capita diru-sarreraren arabera kalkulatu dira, Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako eskubideen garapenari buruzko apirilaren 12ko 26/2018 Foru Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoarekin bat. Horretarako, familia- edo bizikidetz-unitatearen azken sei hilabeteetako guztizko diru-sarrerak guztizko kide kopuruaren artean zatituko dira.

- Lehentasuna emanen zaie 2025. urtean dirulaguntza hau jaso duten onuradunei, jada abiatuak dauden esku-hartzeei jarraipena emate aldera, gehienez ere bi urtez. Lehentasuna izateko, 2025eko abenduaren 31ra arte dirulaguntza jasotzen aritu diren onuradunek deialdi hau noiz argitaratu eta bi hilabeteko epean, gehienez, berritzeko eskabidea aurkeztu beharko dute, eta oinarri hauetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu, eta aurreko deialdian diruz lagundutako alokairu-ordainagiriak justifikatuta eduki.

Berritzez gain, kontzesio berriak baloratuko dira, aurrekontu nahikoa egonen dela espero bada bata zein besteari aurre egiteko, eta kontzesio berriak egingen dira bakarrik nahikoa kreditu badago. Eskaerak berritzeko bi hilabeteko epea amaitu ondoren, eskabideak sartu ahala duten hurrenkeraren arabera irizpidearekin baloratuko dira.

- Nolanahi ere, dirulaguntza jasotzeko eskubidea indargabetuko da 24 hilabetez jaso bada, erreferentziatzeko udal gizarte-zerbitzuak hala eskatuta Balorazio Batzorde Teknikoak baloratuko dituen honako salbuespen hauekin, zeinetan sei hilabeteko luzapen bakarra egiten ahalko baita:

* Familia batek babes ofizialeko etxebizitza bat (BOE) eskuratzeko aukera onartuta eduki eta laguntzak beharrezkoak baditu aldi berean ordaintzeko hala alokairuzko etxebizitza (librea edo babesekoa) nola sustapen publiko emandako etxebizitza ordaintzeko kostua (giltzak eskuratu arte).

* Hur-hurreko hobekuntza aurreikusten bada gizarte-, lan- edo ostatu-egoeran, eta hala zehazten bada kasuan kasuko udal gizarte zerbitzuetako gizarte-langilearen gizarte-txostenean.

* Osasun prozesu larriekin zerikusia izan, eta, kasuan kasuko udal gizarte zerbitzuak proposatu eta Batzorde Teknikoak modu arrazoituan baloratzen dituen bat-bateko kasuak.

- Salbuespenez, eskaera baloratzeko unean, Balorazio Batzorde Teknikoak modu arrazoituan proposatzen ahalko du alokairuak ordaintzeko dirulaguntza bat ematea, hilean gehienez ere 280 eurokoa eta gehienez sei hilabetekoa, oinarri hauetan ezarritako portzentajei lotu gabe, betiere dirulaguntza hori gehiago luzatzeko aukerarik gabe eta lotuta, gainerakoan, deialdi honetan ezarri eta jasotakoari.

- Nolanahi ere, erabateko lehentasuna izanen dute Etxebizitzaren aldeko programa honi heltzerakoan adingabeak dituzten familiak, baldin eta horiek ohiko etxebizitzari eusteko zailtasunak izateagatik Udalaren gizarte zerbitzuen esku-hartzearen xede badira.



BANAKAKO EBALUAZIOA

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdian gehienez ezarritako zenbateko osoa: 300.000 €

Paragrafo honen amaieran adierazitakoa ezertan galarazi gabe, aurrekontu-kontsignazioa 2026an agortzen bada eta Gizarte Ekintzako Alorrean urte honetarako aurreikusitako beste jardueretako batzuk ez badira egin, jarduera horietarako aurreikusitako zenbatekoak deialdi honetan erabiltzen ahalko dira, baina horrek ez du berez ekarriko beste deialdi bat egitea.

Gehikuntza horren onuradun izanen dira, betiere deialdi honetako B letraren 4 zenbakian aurreikusitakoa kontuan harturik, eskaera deialdi honekin bat eta dirulaguntzak eskatzeko epean -2026ko urriaren 31 baino lehen- egin duten pertsonak, baldin eta aurrekontu-partida agortzeagatik dirulaguntzarik jaso gabe gelditu badira.

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontuko partida: 70/23181/480000

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Dirulaguntzaren hileroko gehieneko zenbatekoa (edo laguntzaren gehieneko kopurua) ezin izanen da izan kontratuan ezarritako etxebizitzaren alokairuaren kostuaren % 70 baino gehiago. Nolanahi ere, hileko 700 eurotan finkatzen da deialdi honen xede den etxebizitza baten alokairuaren gehieneko kostua eta beraz, handiagoa bada, gehieneko zenbateko horren arabera egingo da dirulaguntzaren kalkulua.

Familia-unitate eskatzailea dirulaguntzaren xede den etxebizitzaren alokairuaren titularkide bada, eman beharreko dirulaguntza haren titularkidetasun-portzentajearen arabera kalkulatu da, eta, hala badagokio, ezarritako gehieneko alokairu-kostuari erreparatu da.

Ez dira diruz lagunduko guztira 200 euro edo gutxiagoko benetako kostua duten alokairuak.

Dirulaguntzaren banakako zenbatekoa zehazteko irizpideak: Dirulaguntzaren hileko zenbatekoa etxebizitzaren benetako alokairu-kostuaren edo ezarritako gehieneko alokairuaren % 70etik % 50era bitartekoa izanen da, familiaren per capita diru-sarrerak kontuan hartuta (diru-sarrera horiek kalkulatu dira familia-unitateko kideen guztizko diru-sarrerak –oinarri hauetan ezarritakoaren arabera zenbatuak– kide guztien artean zatituz). Diruz laguntzeko ehuneko zehatza taula honen arabera erdietsiko da:

Dirulaguntzaren zenbatekoa:

PER CAPITA ERRENTA HILEKO DIRULAGUNTZA

275 € baino gutxiago	Alokairuaren kostuaren % 70
275,01 - 295 € artean	Alokairuaren kostuaren % 65
295,01 - 315 € artean	Alokairuaren kostuaren % 60
315,01 - 335 € artean	Alokairuaren kostuaren % 55
335,01 baino gehiago	Alokairuaren kostuaren % 50

4. Urte anitzeko deialdia: ☒ BAI ☐ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

5. Urtekoak:

Urteko arrunta:	300.000 €	2. urtekoa:	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa (2026)	300.000 €	3. urtekoa ()	€		



D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Dirulaguntzaren onuradun izaten ahalko dira dirulaguntza emateko oinarrian adierazten den egoeran dauden pertsonak edo entitateak, baldin eta jarraian adierazitako inguruabarretan badaude, eta Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-kasutan ez badaude; eta non eta, dirulaguntzaren izaera dela-eta, interesduna azken baldintza hori bete behar izatetik salbuesten ez den; kasu horretan, hala adierazi beharko da apartatu honetan.

Berariazko baldintzak: ☐ BAI ☒ EZ

Dirulaguntza eskatzen ahalko dute honako betekizun hauek betetzen dituzten pertsonak edo familia-unitateak:

1.- Ziurtatzea familia halako krisi-egoera batean dagoela non laguntza behar baitu bizitoki duen etxebizitzaren alokairua ordaintzeko. Etxebizitzak Iruñeko udal-mugartean egon behar du. Salbuetsita daude genero-indarkeriarekin zerikusia duten arrazoiengatik hiritik alde egin behar duten familien kasuak, Balorazio Batzorde Teknikoak ezarritako denborarako; denbora hori ezin izanen da 6 hilabetetik gorakoa izan.

2.-Deialdi honen bidez eskatzen den dirulaguntza zein alokairutarako eskatzen den eta, alokairu horren titularra edo titularkidea izatea eta honako egoera hauetako batean egotea:

- Egiaztatzea Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako Babes Ofizialeko etxe baten titularra izatea, eta, maizter-familiaren egoera ekonomikoak okerrera egin eta ez ordaintzeagatik etxearen eskubidea galtzeko arriskuan egotea. Egoera horretan, kontratua berrikusi eta Nafarroako Gobernuak departamentu eskudunak diruz lagunduko duen unea arte mugatuko da dirulaguntza emateko epea, gehienez.

- Egiaztatzea merkatu libreko alokairuko etxebizitza bateko titularra edo titularkidea izatea eta etxebizitza izateko eskubidea berehala galtzeko arriskua egotea, ezin izateagatik alokairua ordaindu. Horrelakoetan, ez dira kontuan hartuko eskaera egin duen familia-unitateko edozein kidearekin bigarren mailara arteko odol edo ezkontza bidezko zuzeneko ahaideen artean sinatutako errentamendu-kontratuak, ez eta iruzurrez faltsututako kontratuak ere.

- Egiaztatzea alokairuko etxebizitza baten titularra edo titularkide izatea eta maizter diren familiek edo onuradunek agortu izana etxebizitza larrialdiko egoeretarako udal etxebizitzetan, Etxe Bat programan edo Aukera Eman Zure Buruari Laguntzak Dituzu programan egoteko gehieneko denbora, udal etxebizitzetatik irten eta aurrez aipatutako bi egoeretatik edozein gertatzen den etxebizitza batera bada.

3.- Nafarroako Gobernuaren etxebizitza babestuaren eskatzaileen erroldan izena emanda egotea eta aurrez DAVIDd, Emanzipa edo 2026an deitutako antzeko programetara sartzea eskatu izana, deialdi hau osagarria baita. Betekizun hori salbuetsi egingen da agiri bidez egiaztatutako ezintasun-egoeren kasuan, Balorazio Batzorde Teknikoak hala baloratu baditu.

4.- Eskatzailea den familia-unitatea laguntza emateko eta gizarteratzeko programetako edozeinetan gizarte zerbitzuetako erabiltzaile izatea. Baldintza hori bete beharko dute, halaber, aterpe-premiako egoeretarako edo Etxe Bat programako udal-etxebizitzetan maizter diren familiek; izan ere, programaren jarraipena beharko dute, eta, erabiltzaile ez badira, nahitaez bideratu beharko dira eta bertan egon beharko dute dirulaguntza honen onuradun diren bitartean.

5.- Iruñean erroldatuta egotea, gutxienez 6 hilabeteko antzinatasunarekin. Baldintza hori salbuesten ahalko da kasuan kasuko gizarte-langileak eskaera arrazoitua egiten badu; eskaera hori Balorazio Batzorde Teknikoak baloratu beharko du.

6.- Diru-sarreraren eta ondasunen muga:

a. Kanpoan geratzen dira urtean kide bakarreko familia-unitate batendako errenta bermatuari dagokion zenbatekoaren % 65etik gorako ondasun higigarriak dituzten familia-unitateak, bai eta kide bakarreko familia-unitate batendako urteko errenta bermatuari dagokion zenbatekoa halako hamar baino gehiagoko ondasun higiezinak dituztenak. Hala ere, aurreko horretatik kanpo geratzen dira ohiko etxebizitzako altzariak, etxe hornidura, ohiko garraio-ibilgailua, eta lan- edo enpresa-jarduera garatzeko beharrezkoak diren ondasunak, hirurehun mila euroko mugarekin eta, betiere kide baten urteko errenta bermatuari dagokion zenbatekoa halako hiru izanik muga.

b. Nolanahi ere, kanpo geratuko dira aitortu gabeko baliabide ekonomikoak dituzten familia-unitateak.



BANAKAKO EBALUAZIOA

c. Kanpo geldituko dira jabetzan edo ohiko etxebizitzaren alokairua ez den beste edozein araubideren pean etxebizitza duten familia-unitateak, salbu eta infraetxebizitza edo etxebizitza aurri jotako kasuetan.
b. Kanpo geldituko dira eskaera egin aurreko 5 urteetan etxebizitza baten jabetza eskualdatu duten familiak. Salbuespena izanen dira banaketa- edo dibortzio-kasuak, eta jabetzaren galerak familia onuradunari diru-etekinik ekarri ez dizkien horiek. Kasu horiek guztiak agiri bidez egiaztatu beharko dira.
e. Programatik kanpo geldituko dira Errenta-aitorpenaren 507 epigrafean ("Zerga-oinarriaren zati orokorra") edo familia-unitateko kide guztien azken sei hilabeteetako batez besteko hileko diru-sarreretan, deialdi honen B.4 apartatuan ezarritakoaren arabera kalkulatuta, V. eranskineko taulan (alokairuetarako dirulaguntzak eskuratzeko ezarritako gehieneko diru-sarrerak) ezarritako Ondare Anitzeko Errenta Adierazle Publikoaren ehunekoak (urtean zenbatuta) gainditzen dituzten familia-unitateak.

7- Etxebizitzaren bidez gizarteratzeko adostutako plana. Dirulaguntza honen balorazioa egiteko ezinbestekoa da kasuan kasuko profesionalak egindako gizarte-txostenean honako hauek jasotzea:

- Laguntza hau eskatu arte erabili diren etxebizitza-arloko baliabideak.
- Arlo horretan aurreikusten diren hobekuntzak, gehienez ere 24 hilabeterako (prestazio hori jasotzen ahal den gehieneko aldia da, B.4 apartatuan aurreikusitako ez-ohiko inguruabarrak ukatu gabe).
- Familiarekin eginen den banakako ibilbidea, etxebizitzari autonomiaz eusteko helburua lortzeko.
- Zein maiztasunez eginen den ibilbidearen jarraipena.

Dirulaguntzaren izaera berezia denez, pertsona edo entitate onuradunek ez daukate zertan egiaztatu Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako baldintzak betetzen dituztela:

☒ BAI ☐ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunaren betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

1.- Familia-unitatearen erantzukizun dira alokairu-kontratua formalizatzea, hura hilero ordaintzea eta etxebizitza okupatzeak berekin dakartzan betebeharrak guztiak, errentariari dagozkion gastuak barne.

2. Alokaturako etxebizitza familia-unitate onuradunaren ohiko etxebizitza iraunkor gisara erabiltzea. Ezin izanen zaio etxebizitzaren zati bat azpierrean eman edo laga beste familia-unitate edo pertsona bati.

3.- Dirulaguntza eskusiboki alokairua ordaintzeko erabiltzea.

4.- Banakako ibilbidean hartutako konpromisoak betetzea.

5.- Hileko alokairua ordaindu izana egiaztatzen duten ordainagiriak aurkeztea dagokion udal gizarte zerbitzuari. Ordainketa banku-sarrera edo transferentzia bidez egin beharko da, eta bertan agertu beharko dira errentaria edo familia-unitate onuraduneko beste kideren bat, bai eta dirulaguntza eskatzeko unean aurkeztutako alokairu-kontratuan agertzen den errentatzailea ere. Ordainketa zein hilabeteri dagokion adierazi beharko da. Udalak ordainketak egiten ari direla egiaztatuko du, eta onuradunak aurreko hilabete guztiak ordaindu dituela justifikatu beharko du (ordainketa zer hileko kuotari dagokion, gutxienez aurreko bi hilabeteak arte).

6.- Dirulaguntza emateko orduan aintzat hartutako baldintzetan izandako edozein aldaketaren berri ematea (diru-sarrerak, etxer aldatzea, alokairuaren zenbatekoa aldatzea,



familia-unitateko kide-kopurua eta abar), 15 eguneko epean.

7.- Familia-unitate onuradunak helburu berberarekin erdietsitako edo erdietsiko duen beste edozein dirulaguntzaren berri ematea, emaila edozein administrazio edo entitate publiko izanda ere, estatukoa zein nazioartekoa.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezala publizitatu eta hedatu behar dute Udalak publikoki finantzatu dituela dirulaguntzaren xede diren jarduerak edo proiektuak. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko dute komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafiko batzuetan egiten den komunikazio edo publizitateari dagokionez, honako lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hori betetzen ez bada, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman den, horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikularekin bat: ☐ BAI ☒ EZ

Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Deialdi honen oinarriekin bat emandako dirulaguntza honako kasu hauetan aldatzen ahal da:

- Familia-unitateko kideen kopurua handitzea edo gutxitzea.
- Etxebizitzarekin zerikusia duen edozein laguntza edo dirulaguntza eskuratzea, edozein administrazio edo entitate publikoren eskutik.
- Familia-unitatearen diru-sarrerak handitzea edo gutxitzea, horrek diruz laguntzen ahal den zenbatekoa % 10 baino gehiago aldatzea badakar.
- Alokairuaren zenbatekoa handitzea edo gutxitzea, horrek diruz laguntzen ahal den zenbatekoa % 10 baino gehiago aldatzea badakar, beti ere deialdi hauetako C.3 apartatuan ezarritako mugen barnean.

Kasu horietan eskabidea aurkeztu beharko da egoera berria jakinarazteko, aldaketa gertatu eta 15 eguneko epe luzaezinean, eta hori justifikatzen duten agiriak aurkeztuko dira. Kasuan kasuko udal gizarte zerbitzuak ere aldaketa horien berri ematen ahalko du era loteslean, ofizioz antzematen direnean.

Aldaketek ez dute atzeraeraginik izanen, eta eskaera (egiaztagiri egokiak barne) aurkeztu eta hurrengo hilabetetik aurrera aplikatuko dira, salbu eta ezarritako epean jakinarazi ez diren etxebizitzari buruzko laguntza edo dirulaguntza bat baino gehiago batera gertatzen direnean, kasu horretan dagokion itzulketa-espedientea ireki edo urte horretan emandako dirulaguntzaren ordainketak berdinduko baitira.



G. ESKABIDEAK AURKEZTEA:

1. Eskabideak non aurkeztu:

Dirulaguntzetarako eskabideak honako toki hauetan aurkeztu ahal dira: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean, Kondestablearen jauregian (Kale Nagusia 2, behe), erregistro osagarrietan, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozeinetan.

2. Eskabideak aurkezteko epea:

Eskaerak aurkezteko epea hasiko da deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean, eta 2026ko urriaren 31n amaituko da.

Deialdia 2026. urtean egonen da indarrean, baldin eta aurkeztu diren eskaerei erantzuteko aurrekontu-kreditua badago.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Laguntza hau eskatzeko, eskabide bat aurkeztu beharko da interesdunak berak sinatuta edo zuzenbidean baliodun den edozein bide baliatuta ordezkari dela egiaztatzen duen pertsona batek sinatuta, deialdi honen I. eranskineko ereduarekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4) apartatuan aipatzen diren agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean hutsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkeztuz, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldez aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoen eskuetan badaude, haien ordezkari erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal da indarrean direla egiaztatzeko, bertan adierazita noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokio, nork eman zituen edo non dauden jasota, betiere ez badira bost urte baino gehiago pasatu agiriak dagokien prozedura amaitu zenetik.

Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duen agiria, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzekoa.

- NANA/AIZA/Pasaportea edo nazioarteko babesa izapidetzeko eskatzaile izaera egiaztatzeko agiriaren fotokopia.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. eranskina eredu hartuta, ziurtatzen duena eskatzaileak betetzen dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek eskatzen dituen betekizun orokorrak eta deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ez diola ezein debeku-ziok eragiten Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnetatik.

c) Agiri hauek, eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela egiaztatzeko:

☐ Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

☐ Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, aipatu betebeharrak eguneratuak dituela



BANAKAKO EBALUAZIOA

ziurtatzeko. Hala bada, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio gehienez ere 15 eguneko epean aurkeztu ditzala adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).

Udalak ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio horrekin dituen tributu-betebeharrak, eta dagokion eginbidearen bitartez adieraziko du egiaztapen hori.
Dirulaguntza honen izaera eta xedea kontuan harturik, ez zaie eskatuko eskatzaileei c) letra honetan adierazitako agiriak aurkezteko.

d) Eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteren bat bada –publikoa zein pribatua–, eskabidean berariaz adierazi beharko da elkarteko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkarteren ordezkari edo ahaladun bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarrekin onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen batean bildu beharko dira beste administrazio, entitate edo pertsona publiko edo pribatu batzuei helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, eta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak zehaztu beharko dira. (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. eranskina). ☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria: eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatu behar du.

g) ETXEBIZITZAREN ALDE programaren proposamen-txostena, auzo-unitateko edo kasuan kasuko udal-zerbitzuko gizarte-langileak egina, beteta eta deialdi honekin batera doan IV. eranskineko ereduaren arabera.

h) Egiaztagiri bat, non zehaztuko baita eskatzaileak eskaera egin baino sei hilabete lehenago jasotzen dituen pentsioek, soldatek eta/edo prestazioek zenbat jotzen duten, eta aurreko urteko Errenta Aitorpenaren fotokopia –jatorrizko agiria ere erakutsita–, halakorik badago, adierazteko eta justifikatzeko eskatzailearen diru-sarrerak edo, hala badagokio, elkarbizitza-unitate ekonomikoarenak. Hileko zenbatekoarekin batera aparteko ordainsarien eta PFEZren atxikipenaren zati proportzionala zenbatuko da, eta horretatik Gizarte Segurantzari eginiko kotizazioak eta nahitaezkoak edo antzekoak diren beste batzuk kenduko dira.

i) Diru-sarreraren erantzukizunpeko adierazpena, egoera irregularrean egon eta ezin bada beste era batez diru-sarrerak edukitzea edo ez edukitzea frogatu.

j) Familia-unitateak errenta-aitorpenik aurkezten ez duenean, familia-unitateko 16 urtetik gorako kide bakoitzari dagozkion Foru Ogasuneko ziurtagiriak erantsi beharko dira, errenta-aitorpena egiteko betebeharrak ez izateari buruzkoak, bai eta Ogasunaren esku dauden horietako bakoitzaren datu fiskalen ziurtagiria ere.

k) Transferentzia bidez ordaintzeko eskabidearen jatorrizko inprimakia, VI. eranskinean jasotako udal-ereduarekin bat beteta, non adieraziko baitira ordainketarako baliatu beharreko banku- edo kutxa-kontuaren zenbakia eta horren titularrak.

l) Alokairu-kontratuaren kopia kautoa.

m) Deialdi honen bidez diruz lagunduko den etxebizitzaren alokairuaren azken bi ordainagiriak edo alokairuaren ordainketan egunean egotearen frogagiria.



BANAKAKO EBALUAZIOA

n) Nafarroako Gobernuaren etxebizitza babestuaren eskatzaileen Erroldan izena emanda egotearen frogagiria, aktiboa eskaera egiten den unean, hala badagokio.

ñ) Nafarroako Gobernuaren DAVID edo Emanzipa programetan sartzeari eskatu izanaren frogagiria, baita haren ebazpena ere, halakorik balego.

o) Dirulaguntza eskatzea eragin duen egoera egiaztatzeko eta dirulaguntzaren onuradun izateko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkoa den beste edozein dokumentazio osagarri.

- Deialdi honen izaera dela eta, ez da aurreikusten 4.d apartatuan ezarritako aukera.

- Deialdi honen ondorioetarako, 4.e apartatuan eskatzen den informazioa deialdiaren I. eranskinean jasota dago.

- Udalak ofizioz egiaztatuko ditu onuradunen erroldatzea edo bizikidetzaren, interes publikoa duen eginkizuna betetzeko edo arduradunari emandako botere publikoak egikaritzeko. Tratamendu horren aurka egitea eskatzen ahalko da, etxebizitzan bizi diren guztien bizikidetzaren ziurtagiria aurkeztuta.

Agiriei jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuek, edo, bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

Agiriei jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuek, edo, bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

H. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENA JAKINARAZTEA:

1. Prozeduraren instrukzioa: Espedienteak jaso ahala tramitatu eta ebatziko dira, horretarako aurrekontu-kreditua dagoen bitartean, betiere deialdi honen B.4) apartatuan zehaztutako betekizunen, moduen eta balorazio-lehentasunen arabera. Instrukzio-organoak emanen du ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik eta espedientearen kontuan harturik, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

1. Prozeduraren instrukzioa: Espedienteak jaso ahala tramitatu eta ebatziko dira, horretarako aurrekontu-kreditua dagoen bitartean, betiere deialdi honen B.4) apartatuan zehaztutako betekizunen, moduen eta balorazio-lehentasunen arabera. Instrukzio-organoak emanen du ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik eta espedientearen kontuan harturik, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Balorazio Batzorde Teknikoa eratuko da, eskabideak ebaluatzeko instrukzio-organoari laguntzeko, honako hauek osatua: dirulaguntza hauen gaineko balorazioa egitea esleiturik duen Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko Alorreko teknikaria eta Harrera eta Etxebizitza-baliabideen programaren arduraduna.

Eskaerak baloratzeko, abiapuntutzat hartuko dira eskatzaileak aurkeztutako agiriak eta deialdi honen IV. eranskin gisara (Etxebizitzaren Alde programaren proposamen-txostena) jasotako txosten teknikoak, auzo-unitateak edo udaleko beste gizarte-zerbitzuek igorria.

Batzorde Teknikoak balorazioaren gaineko txosten arrazoitua egingen du, eta dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztuko du, eta, hala badagokio, oinarri hauetan aurreikusitako salbuespenak berariaz baloratuko ditu, behar bezala arrazoituta.

Balorazio positiboa egin ondoren, kasuan kasuko udal gizarte-zerbitzuak alde aurretik erabakitako etxebizitza arloko gizarteratze-ibilbidea hasiko dela jakinaraziko die onuradunei, eta elkarrekin ezarriko dituzte ibilbide horren jarraipena eta ebaluazioa egiteko epeak eta bideak, ezarritako helburuen betetze-maila egiaztatzeko. Hiru hilean behin egiaztatuko da, gutxienez.

Lehenik eta behin, aurreko urtetik datozen eta oraindik 2 urteko gehieneko epea agortu ez duten eskabideak berrituko dira, B.4 apartatuan aurreikusitako salbuespenekin. Aurreko urtetik datozen eskaera guztiak berritu ondoren, urtean zehar aurkeztutako eskaera berriak baloratuko dira, harik eta epea amaitu arte edo programa honen aurrekontu-kontsignazioan aurreikusitako kopurua agortu arte.

Aurreko urtean emandako dirulaguntza berritzeko eskaeren kasuan, Balorazio Batzorde Teknikoak



programan parte hartzen duten familiek bertan jarraitzea bidezkoa den ala ez zehaztuko du, oinarri hauetan jasotakoarekin bat.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea:

Lau hilabeteko epean ebatzi eta jakinarazi beharko da gehienez ere.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: zer pertsona edo entitate eskatzaileri emanen zaion dirulaguntza, dirulaguntzaren zenbatekoa eta, hala badagokio, zer pertsona edo entitate eskatzaileren (bat baino gehiago izaten ahal dira) eskaerak ezetsi diren.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- Tramitzatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- ☐ Epea zenbatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta, berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsitzat joko da.

I. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzea: ☐ BAI ☒ EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2 artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

J. DIRUZ LAGUNTZEN AHAL DIREN GASTUAK:

1. Diruz laguntzen ahal diren gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzen ahal diren gastutzat joko dira diruz lagundutako jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen J.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek laguntzen ahal dira diruz:

- Ohiko etxebizitzaren hileko alokairuaren ordainketa.

Diruz laguntzen ahal diren gastuetan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat joko dira deialdi honen J.2) apartatuan ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutakoak: ☒ BAI ☐ EZ

Honako gastu hauek ez dira, inola ere ez, gastu diruz laguntzen ahal diren gastutzat hartuko:

- Komunitate-gastuak.
- Etxebizitzaren hornikuntza-gastuak.
- Etxebizitzaren alokairua ez den beste edozein gastu, hala nola etxebizitzari lotutakoak (garajea eta trastelekua).



2. Diruz laguntzen ahal diren gastuak egiteko epea:

Diruz lagunduko da 2026. urtean, abenduaren 31ra bitarte, ohiko etxebizitzaren alokairuari dagokion zatia.

K. AZPIKONTRATAZIOA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☐ BAI ☒ EZ

Ehunekoa:

L. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, letra honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra:

☒ BAI ☐ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa: Deialdi honen dirulaguntzen xedea den alokairuaren kostuari aurre egiteko, kostuaren parte bat ordaintzeko laguntzak emanen dira deialdiaren C.3) eta Q) apartatueta ezarritakoaren arabera, eta onuradunek betebeharra izanen dute kostuaren gainerako ehunekoa edo zenbatekoa ordaintzeko.

M. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Laguntza edo dirulaguntza bat baino gehiago jasoz gero, diruz laguntzen ahal den zenbatekoa honela kalkulatu da:

1. Eskatzaileari dagokion portzentajea deialdi honekin bat kalkulatu da familia-unitate onuradunaren per capita errentaren arabera, eta alokairuaren kostu errealari aplikatuko zaio, C.3 klausulan ezarritako mugekin.

2. Ateratzen den zenbatekoari beste administrazio edo erakunde batetik datorren laguntza edo laguntzak kenduko zaizkio, eta diferentziagatiko dirulaguntza emanen da.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatzen bada, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo erdietsiz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egingen da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.



N. ORDAINKETA:

1. Ordaintzeko sistema: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondoko ordainketa.

☒ Konturako ordainketa:

☐ Ordainketa zatikatua:

☒ Ordainketa aurreratua: Dirulaguntza ematen denean, ordainketa aurreratu bat egingen da, lehen bi hilabeteetako (eskabidea erregistratu zen hiletik zenbatzen hasita).

Dirulaguntzaren gainerakoa hileror ordainduko da, aurrez, behin onuradunek justifikatuta aurreko alokairu ordainagiriak ordaindu dituztela –laguntza zer hilabetetarako eskatu eta, gutxienez, haren aurreko bi hilabetera bitarte–.

☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Baliabide hau gizarte-larrialdietarako denez, baldintza hau bete gabe utziko da, Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 33.4 artikuluekin bat.

2. Bermeak eratzea:

☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

Ñ. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

☐ Justifikazio-kontua:

☐ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta:

Bestelako edukiak: ☐ BAI ☐ EZ

☐ Justifikazio-kontu erraztua:

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitate-orriak aurkeztea:

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☒ Beste sistema bat:

Etxebizitzaren alokairuaren ordainketa osoa egiaztatzen duten ordainagiriak aurkeztuz egingen da justifikazioa.



Hileko alokairua ordaindu izana egiaztatzen duten jatorrizko ordainagiriak edo haien benetako kopiak aurkeztu beharko dira dagokion udal gizarte-zerbitzuan. Ordainketa banku-sarrerara edo transferentzia bidez egin beharko da, eta bertan agertu beharko dira errentaria edo familia-unitate onuraduneko beste kideren bat, bai eta dirulaguntza eskatzeko unean aurkeztutako alokairu-kontratuan agertzen den errentatzailea ere. Ordainagirian etxebizitzaren alokairuari dagokion zenbatekoa eta zein hilabeteri dagokion jaso beharko dira.

Udalak ordainketak egiten ari direla egiaztatuko du, eta onuradunak aurreko hilabete guztiak ordaindu dituela justifikatu beharko du (ordainketa zer hileko kuotarako ordaindu, gutxienez aurreko bi hilabeteak arte).

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga:

Justifikazioa hileroko eginen da, behin alokairua ordaindu eta gero.

O. DIRUA ITZULARAZTEKO BERARIAZKO ARRAZOIAK:

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan eta apartatu honetan adierazitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoiak bat gertatzen bada, zilegi izanen da bai jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, bai eta berandutze-interesak galdatzea ere – dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

- Ez betetzea kasuan kasuko udal gizarte zerbitzuarekin etxebizitza arloko gizarteratze plan adostuan ezarritako konpromisoak.
- Beste edozein administrazio, entitatek edo pertsonak helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrerara edo baliabideak jaso dituela jakinarazi ez izana, horien berri izan bezain laster.
- Ezkutuko baliabide ekonomikoak detektatzea.
- Udaleko Gizarte Zerbitzuetako profesionalei lana ez erraztea beren egoeraren jarraipenean eta laguntzan.
- Zuzeneko ahaideekin egitea etxebizitzaren alokairu-kontratua (odolkidetasuneko bigarren mailara arte), edo kontratua iruzur bidez faltsutu izana.
- Agiri bidez ez egiaztatzea jasotako laguntza oso-osorik erabili dela etxebizitzaren alokairua ordaintzeko.
- Ohiko etxebizitza iraunkor gisara ez erabiltzea dirulaguntzaren xede den alokairuko etxea.
- Etxebizitza azpierrengatik ematea edo lagatzea, osorik edo hein batean (logela bat alokatzea), beste familia edo pertsona bati, dela doan, dela diru-truk.

Bidegabe jasotako kopuruak atzera itzultzea ezertan galarazi gabe, zehapen-prozedura hasi ahalko da, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 52. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat. Bertan ezartzen da arau-hauste larrien edo oso larrien kasuan, galtzen ahal dela, besteak beste, Iruñeko Udalarengandik, haren erakunde autonomoengandik zein Udalaren pean dauden gainerako erakunde publikoengandik dirulaguntzak, laguntza publikoak eta abalak hartzeko aukera, gehienez ere bost urteko epean.



P. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsoa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

Q. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

1.- Familia-unitate batek gastu finko eta nahitaezkoak baditu –haurtzaindegia, birgaitze-lanak, gizarte- eta osasun-arta bereziak eta ezinbestekoak, beste baliabide bidez ordaindu ezin daitezkeenak, Gizarte Segurantzarekin eta Foru Ogasunarekin zorrak, etab.–, kasuan kasuko udal gizarte zerbitzuak berariaz eskatzen ahalko du gastu horiek –behar bezala justifikatuta– diru-sarreretatik deskontatzeko, dirulaguntzak alokairuaren zer portzentaje estali behar duen erabakitze baliatuko den per capita errenta kalkulatzeko aldera.

2.- Familiek C.3 puntuan aurreikusitako errentaren hurrengo tarteari dagokion dirulaguntza jasoko dute, familia-egoera jakin batzuetan, hala nola hauetan:

- % 65eko desgaitasuna edo handiagoa edota mendekotasun handia duen kideren bat duten familia-unitateetan, hura biren pare zenbatuko da per capita errenta kalkulatzeko garaian.
- Beste egoera pertsonal berezirik egonez gero, erreferentziazko gizarte-zerbitzuak berariaz eskatuta eta arrazoituta.

3.- Ezarritako harremanen izaera juridikoa:

- Iruñeko Udalak ez du inolako lotura formalik izanen, inongo momentutan eta inolako kontzeptutan, ez etxebizitzaren errentatzaileekin, ez prestazio honen onuradunak bizi diren jabeen erkidegoekin. Salbuespen gisa, deialdiaren Balorazio Batzordeko teknikaria edo kasuan kasuko gizarte zerbitzua harremanetan jartzen ahal da errentatzaileekin, hori ezinbestekoa bada onuradunaren ibilbide egokirako.
- Programa honen onuradunak dira harreman juridikoen eta horiek eragindako betebeharren erantzule bakarrak –hala etxebizitzaren errentatzaileen nola fede oneko hirugarrenen aurrean–, erantzukizun zibileko kasuei dagokienez.

R. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ **I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.**

- ESKABIDE-EREDUA.
- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.
- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

☒ **II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.**

I. eranskinak barne hartua

☒ **III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.**

I. eranskinak barne hartua



BANAKAKO EBALUAZIOA

☒ **ERANSKIN OSAGARRIAK.**

IV. ERANSKINA. ERANTSITA, ETXEBIZITZAREN ALDE PROGRAMAREN PROPOSAMEN TXOSTENA

V. ERANSKINA. ALOKAIUETARAKO DIRULAGUNTZAK ESKURATZEKO EZARRITAKO GEHIENEN DIRU-SARRERAK

VI. ERANSKINA. TRANSFERENTZIA BIDEZ ORDAINTZEKO UDAL-ESKABIDEAREN EREDUA